

APOLONIJA SUSTERSIC

We Rule the School izeneko mintegian, Apolonija Sustersic artista eta arkitektoak bere jardueran egindako ikerlanik garrantzitsuenetako bat aurkeztu zuen, artearen eta hiri plangintza eta arkitekturaren artean elkarrekiko lotura bat ezartzen duena.

Erakutsi zuen lehen proiektua *Suggestion for the day* deritzana izan zen, Stockholmen 2000. urtean egina. Bizikletak alokatzeko zerbitzu bat zen proposamena. Hirian barrena ibilaldi bat egitea proposatzen zien erabiltzaileei Apolonija Sustersicek, arkitekturaren ikuspegitik bereziki interesgarriak iruditzen zitzaizkion leku batzuk ikus zituzten. Hiriaren hirigintza garapenari buruzko eztabaida piztea zuen helburu. Proiektuaren amaieran, eztabaidagune bat antolatzea erabaki zuen artistak. Eztabaidagune hartan Stockholmgoko arkitekto, politikari, hirigile eta etxegileek parte hartu zuten. "Hiriaren garapen prozesua izan genuen eztabaidagai, eta geure buruekin eta geure iritziekin ondraduak izaten ahalegindu ginen. Ezkertiarrek eta kontserbadoreek parte hartu zuten, eta horrek etengabe tirabirak eta ika-mikak piztu zituen, baina nire ustez beharrezkoa da plataforma libre bat sortzea", azaldu zuen Apolonija Sustersicek.



Aurkeztu zuen hurrengo proiektua Utrechtan gauzatu zen 2001ean, eta izenburu hau hartu zuen: *Home Design Service*. Lan horrek, aurrekoak bezalaxe, hausnarketa egiten zuen hirigintzaren garapen eta plangintza prozesuari buruz. "Herbereetan etxerik merkeenak berariazko materialak erabiliz eta eredu berari jarraituz eraikitzen dituzte. Etxe guztiak berdinak dira, eta horrek identifikazio arazoak sortzen ditu. Nik jakin nahi nuen nola bizi dituzten auzategia eta etxeak hango biztanleek", azaldu zuen berak. Helburu horrekin, barne diseinuari buruzko dokumentazioa bildu zuen, eta informazio toki bat sortu zuen auzategiaren barruan, auzotarrak aholku bila joan zitezten, edo hizketan egitera, besterik gabe. Azkenean, Apolonija Sustersicek bideo batzuk grabatu zituen auzokideen etxeen barruan, eta gero ikerlanaren osagai gisa erakutsi zituen.

Erabiltzaileen partaidetzan eragina izan zuen beste proiektu bat *Visual Cookie Simulation Café* izan zen, Carlowen egina (Irlanda). Hiri horrek 20.000 biztanle pasatxo ditu, eta hango agintariek arte garaikideko zentro bat sortu nahi zuten, nazioarteko programa bat edukiko zuena. Artistak garatutako proiektuaren ideia zen ahaleginak egitea jendeak zentroaren geroan lagundu ahal izan zezan lortzeko. Horretarako, lehiaketa ireki baterako deia egin zien hiriko biztanleei, eta hauxe eskatu zien: arte zentro berriarekin identifikatzeko modukoa izango zen pasta bat, gozoki bat, sor zezaten. Pasta irabazlea kafetegian egongo zen gero. "Hogeita bost lagunek parte hartu zuten. Gero kafetegi bat eraiki, eta pastak aurkeztu genituen. Liburutegi bat sortu genuen, mundu osoko liburuak eta aldizkariak zituena, eta iritzia eskatu genien gune horretan sartzeko errezelo txarrak hartzen zituzten

lagunei, arrotza eta urruna iruditzen baitzitzaien”, kontatu zuen artistak. Carloweko biztanleen iritziak biltzen zituen bideoa arkitektura lehiaketa batera bidali zuten, halako guneen erabiltzaileek dituzten beharriaren berri emateko asmoz.

Community Research Office proiektua IBID PROJECTS gunean gauzatu zen, Londresko ekialdean, 2003an. Auzategi hartan gertatzen ari zen *birgaikuntza* prozesua ikertzean zetzan proiektu hura. Asmoa zen hirigintza garapenean izandako aldaketaren arrazoiak eta ondorioak miatzea, arte galeriek eta guneez zeresan handia baitzeukaten hartan. *Auzategien birgaikuntza* prozesuaren bidez, jatorriz kanpokoa den jendearen ordez gizarte maila goragokoa den eta beraz erosteko ahalmen handiagoa duen jendea jartzen da. Prozesu horrek aldaketa handia dakarkio hiri paisaiari; arte galeriak eta zentroak desagertu egiten dira, eta haien ordez, bulegoak, kafetegiak eta maila goragoko beste gune batzuk jartzen dira. Azken urteotan Londresko ekialdeak halako prozesu bat jasan du.



Proiektua galeria huts batean hasi zen, eta pixkanaka-pixkanaka informazioz bete zen. Informazioa jendearekin hitz eginda biltzen zen: biztanleekin, udal agintariekin, artistekin, galeria jabeekin, hiri planifikatzaileekin... Galeriaren barruan zegoen “kubo zuri” batera jotzen zuen jendeak bere iritziak eta kezak adierazteko. “Proiektuaren zatirik garrantzitsuenak, informazioa biltzeaz gainera, prentsa oharrak eta auzategiaren etorkizunerako proposamen zehatzak argitaratzea zen”, Apolonija Sustersicen hitzetan. Proiektuak bost urte iraun zuen leku berean; gero, *birgaikuntza* prozesuak bide emandako prezio igoerak hala behartuta, arduradunek utzi egin behar izan zuten. Beraz, lokala itxi, eta liburu bat argitaratu zuten.

Hiri plangintzari buruzko ikerkuntza eta artistaren inplikazioa batzeko saiorearen adibide bat izan zen *Cinema/Studio* proiektua, 2004an Utrecht ondoko Leidsche Rijn auzategian egin zena. Apolonija Sustersicек klaseak ematen dituen Stockholmgo Arkitekturako Errege Akademiako ikasleek eta Utrechtko artista bisualek parte hartu zuten ekimen horretan. Utrecht hiriko auzategi bat da Leidsche Rijn, baina independente dabil; nahiz eta auzotarrei han bizitzea gustatzen zaien, oinarrizko zerbitzu batzuk falta dituzte, hala nola, haurtzaindegia eta gazteentzako azpiegiturak. “Ikasleak neure lanean inplikatzeko saiatzeko eraren adibide bat da proiektu hau. Hiru astez bizi izan nintzen ikasleekin karabana batean, bizitza eta lana nahastutako egoera hibrido batean. Animazio zinema ikasten ari ginenez, zinema publiko bat antolatu genuen auzategiko haurrentzat. Horrela lortu genuen jendea guregana inguratzea”, azaldu zuen artistak. Auzokideek parte hartutako eztabaidak, lantegiak eta emanaldiak ikerlanaren parte izan ziren.

Apolonija Sustersicek bere ikasleekin elkarlanean aurrera eraman duen beste proiektu bat *Department of Permanent Transformation* izeneko da. Ekimen horrek Stockholmgo Arkitekturako Errege Akademian eztabaidarako leku bat ireki nahi du. "Erakundean beharrezkoak iruditzen zaizkigun aldaketez eztabaidatzeko plataforma bat iradoki nahi izan zuen izenarekin, eztabaida ez baita Akademiako heziketaren parte", azaldu zuen. Eztabaida gunea sortzeko abiapuntua balkoi bat izan zen, Apolonija Sustersicen departamentuak eta administrazioa lotzen dituen. Iazko 2005. urtean ikasleek bultzatutako zenbait ekintza antolatu dira, besteak beste, mintegi bat, artearen eta ekonomiaren arteko loturari buruzkoa. "2006ko programaren ardatza utopikoak izango dira. Eztabaidatzen eta hausnarketak prestatzen saiatzen gara, gero gonbidatuekin horietaz aritzeko", laburbildu zuen.

CC

Testu hau Attribution-NonCommercial-ShareAlike gisako Creative Commons lizentzia baten mende dago. Kopiatu, banatu eta jende aurrean erakuts dezakezu irabazi asmorik gabe baldin bada. Horrez gain, hemendik eratorritako lanik sortzen baduzu, lizentzia beraren mende egin behar duzu.